

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Alkatearen eskuordetze dekretua

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoa aintzat hartu da.

Ikusi da zer xedatzen duten Toki erakundearen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren arautegia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 44. eta 47. artikuluek, bai eta korporazio honetako alkateordeak izendatzen dituen alkatearen dekretuak ere.

Raúl García Ezquerro alkatea ez da egongo 2025eko abuztuaren 4an, 5ean, 6an, 7an eta 8an.

Horregatik guztiagatik,

Alkate-lehendakariak bere eskudantziak baliatuz hau

Ebatzi du

1. Alkatearen eginkizun guztiak Nagore Trepiana Mateo lehenengo alkateordearen esku uztea 2025eko abuztuaren 4rako, 5erako, 6rako, 7rako eta 8rako. Hark behin-behineko alkate zereginetan jardungo du egun horietan. Hala ere, lehenago itzuliz gero, alkateak eginkizunak hartuko ditu berriro.

2. Dekretu hau interesdunari jakinaraziko zaio eta ALHAOn argitaratuko da. Argitalpen eguna gorabehera, dekretua aipatutako egunetan egongo da indarrean, Antolakuntza eta Funtzionamendu Arautegiaren 44.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

3. Udalbatzari horren berri ematea egiten den lehenengo osoko bilkuran.

Guardia, 2025eko abuztuaren 1a

Alkate-lehendakaria

RAUL GARCÍA EZQUERRO